

## #SUSPERTUTOLOSA GIZARTE-BABESA, SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA NORTASUNA

*Acciones y medidas para la reactivación  
socioeconómica y cultural de Tolosa* \_\_\_\_\_ **02or.**

**TOLOSAKO AZOKA**  
*Calidad, sostenibilidad y cercanía*  
**04or.**

**AZKEN BERRIAK**  
*Actualidad tolosarra*  
**10or.**

**AGENDA**  
*¿Qué quieres hacer?*  
**15or.**



# #SUSPERTUTOLOSA

e

**goerari aurre hartu eta aurre egitera bideratu ditu azken hilabeteotan indarrak eta baliabideak Tolosako Udalak.**

Pertsonak erdigunean kokatuz, egungo egoerak gehien kaltetu dituen herritar eta sektoreak babestea eta bereziki zaurgarritasun egoeran dauden pertsonak artatzea izan ditu helburu #SuspertuTolosa planak. 32 neurri, 3 ardatz nagusitan kokatuta, gizarte babesa bermatzeko, hiri ekonomia suspertzeko eta herri izaera babesteko helburuarekin. Guztira, 1,3 milioi euro, besteak beste, ondorengo neurri eta egitasmoak martxan jartzeko: gizarte larrialdietarako eta familientzako laguntzak, indarkeria sexista jasaten duten emakumeen arreta zerbitzua, hainbat sektoretara zuzendutako diru laguntzak, komunikazio kanpaina, erosketa bonuak, larunbateroko azokari lotutako Azoka Lagunak proiektu berria, kultur egitarauak eta komunitate izaera sendotzeko prozesu parte hartzailea.

Adaptarse a la situación actual y sobre todo, responder a las necesidades de las personas en situación de vulnerabilidad y apoyar a los sectores más afectados por la covid19 han sido la principal prioridad del Ayuntamiento de Tolosa durante los últimos meses, gestionando los recursos disponibles de la manera más eficaz y eficiente posible, desde la prudencia y la responsabilidad, en colaboración con el resto de instituciones, agentes locales, diferentes sectores y ciudadanía, haciendo una previsión no solo de cara a este año, sino también al siguiente, con el objetivo de responder a las necesidades actuales y futuras de las y los tolosarras.

Ese es el objetivo del plan #SuspertuTolosa. Un plan con 32 medidas para garantizar la protección social de las personas, reactivar la economía local, proteger la cultura y fortalecer la comunidad. Y a ello se han destinado 1,3 millones de euros.



# Hiru ardatz

1.

## GIZARTE-BABESA PROTECCIÓN SOCIAL

Behar bereziak dituzten pertsonengan edota zaugarritasun egoeran daudenengan arreta berezia jarritz.



2.

## SUSTAPEN EKONOMIKOA REACTIVACIÓN ECONÓMICA

Hiri-ekonomia babesteko eta tokiko kontsumo kontzientea sustatuz.

3.

## NORTASUNA: KULTURA ETA KOMUNITATEA CULTURA Y COMUNIDAD

Herri-izaera mantentzeko.



— 1 —

## Tolosako Azoka garai berrietara egokituz



Fortalecer el Mercado de los sábados para garantizar su futuro es el principal objetivo del nuevo proyecto Azoka Lagunak. Un club de fidelización para apoyar y promocionar la actividad de la feria de los sábados, incidir en los nuevos hábitos de compra e impulsar la transmisión de conocimiento sobre el mercado. Un nuevo proyecto que busca acercar el mercado a las nuevas generaciones, adaptando la azoka a los nuevos tiempos, manteniendo su esencia y los valores propios del mercado: calidad, sostenibilidad y cercanía.

**T**olosak lotura zuzena du gastronomiarekin, landa eremuarekin, lehen sektorearekin eta ekoizleekin; Azoka hiri-ekonomiaren parte garrantzitsua da, herritarren elkargune. Larunbateroko azoka indarberritzen jarraitzeko asmoz, Azoka Lagunak proiektu berria abiarazi da, azokaren marka irudi berria sortu eta webgune berria jarri da herritarren eskura.

Egitasmo horiek guztiek 2018an abiarazitako azokaren inguruko azterketa dute oinarri. Udalak azokaren inguruko azterketa egin baitu, azokaren berezko izaera mantenduta, azoka garai berrietara egokitzeko, kontsumo ohitura berriei erantzuteko eta gazteak azokara erakartzeko helburuarekin, azoka etorkizunean kokatu eta mantentzeko.

### JAUZI DIGITALA

[www.tolosakoazoka.eus](http://www.tolosakoazoka.eus) webgunearen eta marka-identitatean oinarritutako sare sozialen bitartez, azokarekin zerikusia duen edozeren berri izango dute erabiltzaileek, eta harpidetuz gero, Azoka Lagunak fidelizazio-taldera batuz, alegia, posta elektronikoz jaso ahal izango dira, era eskusiboan, azokarekin loturiko berri guztiak: bideo-erreportajeak, errezetak, ikastaroak...

El Ayuntamiento se ha marcado como objetivo estratégico adaptar el Mercado a los nuevos tiempos, desarrollando una nueva imagen de marca y dando el salto hacia la digitalización con la nueva web y el nuevo proyecto Azoka Lagunak.



TOLOSAKO  
**Azoka**

Erosketa ohitura berrietara egokitu, gazteak azokara erakarri eta azoka etorkizunean errotzeko, irudi modernoago eta gazteagoa garatu da.

Azokari nortasun handiagoa eman nahi izan zaio marka irudi berriarekin, Azoka garai berrietarako egokitzeko apustu sendoaren baitan.


## Tokiko jarduera ekonomikoa babestu eta sustatzeko neurriak

El Ayuntamiento con el objetivo de reactivar la economía urbana y promover el consumo local ha puesto en marcha varias campañas de bonos dirigidas al comercio, el sector servicios y la hostelería. También se han creado nuevas líneas de subvenciones para ayudar a sufragar diversos gastos a autónomos de todos los sectores y microempresas; recientemente se ha puesto en marcha otra línea de ayudas para la hostelería y el comercio.

### *Mikroenpresa eta autonomoi zuzendutako laguntzak*

Beren kontura lan egiten duten langile, sektore guztietako autonomoi eta mikroenpresei laguntzak eman dizkie Udalak.

Ondorengo gastuei aurre egiten lagundu da: zaborraren tasa, terrazen tasa, zergak, alokairu edota mailegu gastuak edota mantentze edo hornidura gastuak, besteak beste.



### *Tokiko merkataritza eta ostalaritza jarduera indarberritzeko, 120.000 euro*

Beste urrats bat eginez, Tolosako Udalak laguntza lerro berria jarri du martxan herriko merkataritza eta ostalaritza sektoreak laguntzeko. Guztira 120.000 euro bideratu dira laguntza lerro berrira eta helburua da egoerara egokitzeko establezimenduek egin dituzten inbertsio gastuei aurre egiten laguntzea.

Dirulaguntza eskatu ahal izango dute Tolosako merkataritza eta ostalaritza establezimenduek eta ondorengo zerbitzuetako jarduerak ere bai: ehun eta larru janzkien garbiketa eta ikuzketakoek, ile apaindegiek eta edertasun tratamenduko establezimenduek.

Dirulaguntza emango da lokaletan egin diren egokitzapen lanetarako eta protokoloak betetze aldera erositako ekipamenduetarako: gelak, manparak, termometro digitalak, lurreneztagailuak edota ekipamendu informatikoa.

### *Ostalaritza jarduera babesteko bonuak*

#SuspertuTolosa kanpainak bi fase izan ditu. Lehen bonu kanpaina merkataritza eta zerbitzuen sektoreari lotutakoa (80.000 euro) eta bigarrena, ostalaritzari bideratutakoa (30.000); harrera ezin hobeia izan dute bi bonu kanpainak.

Egungo egoera dela eta, ostalaritza bonuak 2021eko martxoaren 31 arte erabili ahal izango dira eta merkataritza eta zerbitzuen sektoreko bonuak, aldiz, urtea amaitu aurretik kontsumitu beharko dira.



### *Udal zerga eta tasa guztiak izoztuta*

Covid19ak eragin zuzena izan du herritarrengan eta baita jarduera ekonomikoan ere; horregatik, tolosarrei eta hiri ekonomiako eragileei laguntzen jarraitze asmoz, eta egungo testuinguruari erantzunez, datorren urtera begira udal zerga eta tasa guztiak mantendu egingo dira.

Ohiko egutegi fiskala berreskuratuko da datorren urtean, baina terrazen tasaren ordainketa epea atzeratu egingo da.

Halaber, ostalariek terrazak egungo egoerak eskatutako segurtasun neurri guztiak beteta koka ditzaten espazio publikoaren erabilera handiagoa egiten jarraitu ahal izango dute datorren urtean ere, tasan igoerarik izan gabe.



— 2 —

## *Adinkide, adinekoen bakardadeari aurre egiteko programa*

**Adinkide, un programa para hacer frente  
a la soledad de las personas mayores**



Zahartzaro aktibo eta osasuntsuaren alde, Adinkide programa abiatu du Udalak, bakar-tasun egoeran dauden adinekoei laguntza emateaz gainera, auzoetan laguntza-guneak eta sareak sortu, adiskidetasun harremanak bultzatu, eta, oro har, gizartea sentsibilizatzeko. Izan ere, biztanleriaren zahartzea da Tolosak, eta gure gizarteak, aurrean duen erronkarik handienetakoa.

Azken hilabeteotan, Adinkideko boluntarioek Tolosan bakarrik bizi diren 70 urtetik gorako pertsoneri telefono bidezko laguntza eta zerbitzua eskaini diete. Gaur egun, bost boluntario eta bost adineko pertsona ari dira programan parte hartzen. Interesdunek era askotara lagun dezakete, bai aurrez aurre, bai telefono bidez, bai bizilagun-sarean parte hartuz. Horretarako, 676 19 73 54 telefono zenbakira dei daiteke, [tolosa@adinkide.org](mailto:tolosa@adinkide.org) posta elektronikora idatzi edo Emeterio Arreseko Adinkideko bulegora bertaratu. Informazio gehiago, hemen: [www.adinkide.org](http://www.adinkide.org).

Es un programa de acompañamiento para prevenir y abordar la soledad mediante la creación de vínculos de amistad

## *Ekin-Enea, bazterkeria egoeran dauden pertsonak artatzeko eta gizarteratzeko proiektu pilotua*

Gizarte beharrak nabarmen areagotu dira azken hilabeteotan, bereziki zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen artean. Horregatik Ekin-Enea proiektu pilotua jarri da abian bazterkeria egoeran dauden pertsonen beharrei erantzuteko eta pertsona horiei aukera berriak eskaintzeko.

San Frantzisko pasealekuan kokatutako Villa Sagrado Corazón eraikinean tutoretzapeko etxebizitzak sortu dira, Paulgo San Bizenteren Karitateko Alabek eraikina erabiltzeko aukera eman eta gero. Etxebizitzaren kudeaketa Peñaskal Kooperatibak hartu du, eta guztira, 17 lagunentzako tokia dago. Horrez gainera, laneratze eta gizarteratze prozesuak ere sustatzen dira.



El Ayuntamiento ha puesto en marcha junto con la cooperativa Peñaskal, el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa un nuevo proyecto piloto, Ekin-Enea, de atención e integración social y laboral para personas en situación de exclusión.

Se han creado 17 plazas en el edificio Villa Sagrado Corazón situado en el paseo de San Francisco, destinadas a personas en situación de vulnerabilidad, con el objetivo de ofrecerles un proyecto de vida a través de un servicio de intervención integral.


## *Gizarte larrialdietarako eta familientzako laguntzak indartu dira*

Gizarte Zerbitzuetako aurrekontua areagotu egin da aurtun, beharrek nabarmen egin dutelako gora. Gauzak horrela, dirulaguntza lerroak handitu egin dira herritarren beharrei erantzuteko eta zaurgarritasun egoeran dauden herritarrak babesteko. Zehazki, gizarte larrialdietarako laguntzak eta familiei zuzendutakoak areagotu dira eta oinarritzko elikagaien banaketa indartu egin da.

— 3 —

# Kultura segurua da

Tolosatik mugitu gabe, kulturaz gozatzeko aukera



**U**dalak herriko kultur eragile eta taldeekin batera, ekintza kulturalak antolatu ditu uda eta udazken parterako, Susperu Tolosa planaren barruan, herri-izaerari eusteko eta kultura babesteko. Bide horretan, sustatze-spot bat ere argitaratu du herriko eragile, talde, artista eta norbanakoek egiten duten lanari hauspoa emateko eta beren lana eskertzeko.

Udako programazioak musika, dantza, antzerkia eta zinema uztartu ditu aire librean, eta baita haurrentzako hainbat jarduera ere. Hala, kulturak herriko hainbat bazter zipritzindu ditu: Zerkausia, Euskal Herria plaza, Zumardiandia, Alondegia eta Plaza Berria.

Udako egitarauak izan duen harrera ona kontuan hartuta, guztira, 1.200 lagun inguru gerturatu baitira kultur ekintzetara, udazkenara begira ere herriko artisten zein artista gonbidatuen lanari balioa

eman nahi izan dio Udalak, eta beste hainbat jarduera antolatu ditu, irailaren amaieratik abendura bitartean.

**Sustatze-spot bat argitaratu da herriko eragile, talde, artista eta norbanakoek egiten duten lana eskertzeko**

Besteak beste, sasoi honetan antolatzen diren auzoetako festak ospatu ezin izan direnez, hainbat ekintzak tokia hartu dute auzo-elkarteen laguntzaz, Kultura Plazara lelopean, zezen plazan. Eta programa horretatik at, beste hainbat jarduera ere antolatu dira musika, dantza eta antzerkian azpimarra jarriz eta tokiko taldeen parte-hartzearekin. Emanaldi horietako asko zezen plazan eta Leidor aretoan izan dira, edukiera kontrolatuz eta egoerak eskatzen dituen babes neurri guztiekin.





e

gungo egoerara egokituta eta egungo egoerari erreparatuz gauzatu du udalak "Orain inoiz baino gehiago guztion artean Tolosatzen" partaidetza prozesua.

Lehen aldiz, hausnarketa eta lanketa bi mailatan egin da. Batetik, herritarrek, udal aurrekontuetan txertatzeko proposamenak landu dituzte, eta bestetik, norbanakotik abiatuta zer egiteko prest dauden aztertu dute.

Lanketa horretatik ekintza txikien herri aliantza sortu eta garatu da, konpromiso indibiduala eta elkarlan publiko-komunitarioa sustatzeko. Beste era batera esanda, prozesuan parte hartu dutenek Tolosa suspertzen eta etorkizuneko Tolosa eraikitzen lagunduko duten keinu txikiak identifikatu dituzte tolosarron egunerokoan aplikatzeko.

**EKINTZA TXIKIEN HERRI ALIANTZA**

Proposamen eta ekarpen guztiekin datorren urteko egutegia osatu da,



hilebete bakoitzean gai edota esparru batean azpimarra jarritz: mugikortasuna, berdintasuna, bizikidetza, kontzienteki bizitzea... Egutegi hori abenduan aurkeztu eta banatuko da.

**Tolosarrek keinu txikien herri aliantzarekin bat egitea da helburua, herritarra bera izan dadin Tolosako errealitate berriaren eredu eta eraikitzaile**

Ez da dokumentu itxia izango, edozein unetan ekintza txiki berriak gehitu ahal izango dituzte herritarrek egutegiko QR kodigoa erabilita.

Helburua da tolosarrak egitasmoan inplikatzeta, kontzientzia hartzea eta keinu txikien aliantza bere egitea, herritarra bera Tolosako errealitate berriaren eredu eta eraikitzaile bilakatzeko.



*Egoerari buruzko hausnarketa tolosarrekin*

**Proceso participativo para reflexionar sobre el contexto actual y analizar cómo mejorar Tolosa mediante pequeñas acciones**

El Ayuntamiento ha elaborado un calendario para el próximo año con pequeños gestos y acciones individuales que podemos hacer en nuestro día a día para mejorar

Tolosa. Esta alianza se ha desarrollado a partir de las propuestas y aportaciones ciudadanas recogidas en el proceso participativo Tolosatzen.

Por tanto, este calendario de pequeñas acciones y gestos diarios busca la implicación y el compromiso individual de cada tolosarra para lograr mejorar y fortalecer nuestro municipio entre todas y todos, día tras día.





## Umeen emozioak, Haurren Hiria egitasmoaren erdigune



# H

aurren ikuspegia

oinarri, herria hobetzea da Haurren Hiria proiektuaren helburua, eta 2020-2021 ikasturtean covid19ak eragindako egoerara moldatu da programa, haurrak egoera honetan bizitzen ari diren emozioak lantzeko.

Besteak beste, landuko dituzten gaien artean, emozioak ardatz, bizitako itxialdia, normaltasun berria edota eskolara itzultzea daude, egoerak haurrengan zer emozio, kezka, ilusio sortu dituen ezagutu eta aztertzeko.

Saioak Herrikide eta Samaniego Ikastetxeetan eta Laskorain Ikastolan egiten ari dira, Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5.

eta 6. mailako ikasgela osoen partaidetzarekin. Hala, 2021eko maiatzean proiektuaren emaitzak guraso eta udal ordezkariak aurkeztea aurreikusten da.

Haurren ekarpenak 'Guztion artean Tolosatzen' prozesuaren baitan landu den herri-aliantzaren jasoko dira, eta Tolosatzen Eskola Irekiaren programazioaren bidetik, haurrek identifikatutako beharrei erantzuteko egitasmoak diseinatuko ditu Tolosako Udalak gurasoei eta familiei zuzendutako hitzaldien zein tailerren bitartez.

Landuko dituzten gaien artean, emozioak ardatz, bizitako itxialdia, normaltasun berria edota eskolara itzultzea daude



La iniciativa Haurren Hiria se centra en las emociones del alumnado de primaria durante este curso

Con el fin de mejorar el municipio desde la perspectiva de los niños y las niñas, la iniciativa Haurren Hiria (Ciudad Infantil) trabajará las emociones y analizará junto al alumnado de primaria cómo se han sentido y se están sintiendo en relación a la situación actual generada por la covid19.

Las sesiones están teniendo lugar en los centros educativos de Herrikide Ikastetxea, Laskorain Ikastola y Samaniego Ikastetxea, con la participación de aulas completas de 3º, 4º, 5º y 6º de Educación Primaria, y la dinamización presencial de personas educadoras de Arazi. Está previsto que en mayo de 2021 se presenten los resultados del proyecto a los padres y madres y a la corporación.



# AZKEN BERRIAK

Actualidad

## TOLOSA BADABIL MUGIKORTASUN PLAN BERRIA AURKEZTU ETA NEURRIAK EZARTZEN HASI DA UDALA

Planak helburu du etorkizunean Tolosa udalerrri atsegina, seguruagoa, eraginkorragoa, jasangarriagoa eta berdeagoa izatea, oinezkoei lehentasuna emanaz, motordun trafikoari espazioa irabaziz eta mugikortasun eredu berriak sustatuz, emisioak eta kutsadura murrizte aldera.

Mugikortasun Plan berriak epe labur, ertain eta luzerako ekintzak jasotzen ditu eta etorkizuneko Tolosa marrazten du; hainbat legealditan garatuko den plana da, horregatik udal gobernuak legealdi honetarako lehentasunak ezarri ditu, planean jasotako ekimenak Legealdi Planean aurreikusitako proiektu estrategikoekin lerrotatuz.

Hirigintza-proiektu garrantzitsuetatik harago, mugikortasun eredu berriak sustatzeko ekintza txikiak ere aurreikusi dira, mugikortasun eredu jasangarriago eta inklusiboago baterantz urrats sendoak egiten jarraitzeko.

Ondorengo hirigintza proiektu eta neurriak lehenetsi ditu gobernu taldeak:

- **Zumarditxikia:** Herritarrentzat berreskuratuko da oinezkoentzako pasealeku eta gunee berde bihurtuz. Bidegorria zabaldu egingo da.

- **Hiribus elektrikoa eta kargarako-puntuak:** Zerbitzua autobus elektriko bidez eskainiko da emisioak gutxitzeko, eta karga elektrikorako puntuak jarriko dira herritarren artean ere auto elektrikoaren erabilera sustatzeko.

- **Laskoain kalearen eta Gernikako Arbolaren berritzea:** Oinezkoek leku gehiago izango dute; espaloiak zabaldu egingo dira eta espaloia zein errepidea maila berean jarriko dira irisgarritasuna hobetzeko. Bestalde, Laskoain kalea elkarbizitzarako gunee izendatuko da eta S28 kartelak jarriko dira. Eremu honetan autoek abiadura murriztu beharko dute.

- **Oinezkoei lehentasuna Paper kalean eta Oria kalean:** Paper kalea berritu egingo da oinezkoek leku gehiago izan dezaten eta bidegorriak lekualdatu egingo dira. Oria kalean espaloietako bat zabalduko da, aparkaleku lerro bat kenduta.

- **Oinezkoentzako zubia Larramendi-Belaten:** Larramendi eta Belate artean oinezkoentzako pasabide berria eraikiko da udalerriko oinezko ibilbide ardatzak hobetzeko.

- **Gorriti plazan aurrerapausoak:** Oiarbideko eraikina eraitsitakoan gunee egokitu-tuko da, eta sarbidea eta aparkalekua mugatuko dira.

El Ayuntamiento comienza a implantar el nuevo Plan de Movilidad.

Un plan que recoge acciones a corto, medio y largo plazo y que dibuja la Tolosa del futuro, una Tolosa más agradable, segura, sostenible y verde



## LARRAMENDI ETA IBAIONDO ARTEKO BIDEGURUTZEA, BIRIBILGUNE

Hirigintza-proiektu handietatik harago, neurri txikiago batzuk ere aurreikusi ditu udal gobernu taldeak Mugikortasun Planari lotuta, eta Larramendi eta Ibaiondo elkartzen dituen bidegurutzean behin-behineko biribilgune bat sortu da eremu horretako trafiko-fluxuak arintzeko eta inguruko segurtasuna bermatzeko.



Izan ere, mugikortasun ikerketek erakusten dute semaforoak kentzeak eta biribilguneak jartzeak gatazkak murrizten eta fluxuak arintzen dituela.

Probak izandako arrakasta eta harrera ona ikusita, biribilgunea mantendu egingo da eta Udala dagoeneko behin betiko neurriak aztertzen ari da, trafiko-fluxuetatik harago, oinezko zein txirrinduei lotutako egitasmoak ere aurrera emateko.



**Probak izandako arrakasta eta harrera ona dela eta biribilgunea mantendu egingo da**

El cruce entre Larramendi e Ibaiondo se convierte en rotonda provisional, con el fin de agilizar los flujos de tráfico y garantizar la seguridad de las personas viandantes.



## ALDAKETA KLIMATIKOARI AURRE EGITEKO, TOKIKO PLANA

Jasangarritasun-alorrean urratsak emateko eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko, udal gobernuak legealdi honetan estrategikotzat jo ditu trantsizio energetikoaren eta elektro-mugikortasunaren planak. Oraingoan, asmoa da klima aldaketari aurre egiteko estrategia zehaztea eta eraldaketarako ekintza-plana garatzea. Guztira, 6.000 euro bideratuko dira horretara.

Diagnosi fasean aztertuko dira udalaz gaindiko plangintzak eta arautegiak, aldaketa klimatikoa eragiten duten faktoreak eta zeharkakoak, udalerraren errealitatea (hondakinak, natura ingurunea, ener-

gia eta mugikortasuna) eta Udalaren eskumenak, eta ondoren, eraldaketarako ekintza-plana garatuko da, genero ikuspegiarekin lotura duten ekintzak ere barnebilduz. Plana datozen hilabeteotan garatuko da, eta dokumentua herritarren eskura jarriko da datorren urtean.

**Helburua da Tolosaren garapen jasangarrirako estrategia integrala garatzea, trantsizio energetikoa eta elektro mugikortasuna barne hartuko dituen**

## UR DEPOSITU BERRIA URKIZUKO ABELTZAINENTZAT



Gaurdaino Urkizuko abeltzainek traktoreekin igo behar izaten zituzten ur deposituak larreetara, eta hemendik aurrera, garraio gastuetan eta denboran aurreztuko dute Artegietako antenaren sabaian eraiki den ur deposituari esker. Hala, Tolosako Udalak landa-eremuko ekonomia sustatu nahi izan du lurral-

de-oreka mantentzeko, ingurumenaren kontserbaziorako eta bertako produktuen kontsumoa sustatzeko. Azpiegitura berriari esker, biltzen den euri-ura erabili eta depositua zisternen bidez betetzeko aukera dute abeltzainek, depositutik hodian bidez ura lursailetara bideratuz. Proiektu erabat berritzailea da.

### *Nuevo depósito de agua para la ganadería de Urkizu*

El nuevo depósito instalado en el techo de la antena de Artegiet para recoger el agua pluvial permite a las y los ganaderos canalizar el agua del depósito a los terrenos mediante tuberías.

El nuevo depósito facilita y fomenta la actividad ganadera tan importante para la conservación del medio rural, ya que la ganadería es beneficiosa y necesaria para la preservación del medio ambiente.

## HIRIGINTZA- PLAN BERRIA, IURRAMENDI PASEALEKUAN

Legealdi honetako garapen urbanistikoari dagokion lan-lerroari erantzuna emateko, lurramendi pasealekuko plan berezia abiatu du Udalak, batetik, Tolosako etxebizitza babestuen parkea handitzeko, eta, bestetik, lurramendiko berdegunea eskuratu eta herritarren eskura jartzeko. Momentuz, proiektuaren hasierako onarpena baino ez da egin, baina 2021. urte amaierarako edota 2022aren hasierarako hirigintza-lanak hasita egotea aurreikusten da.

Hirigintza-garapenaren baitan 141 etxebizitza eraikitzea da asmoa; horietatik 23 Babes Ofizialeko Etxebizitzak izango dira, 40 tasatuak eta 78 etxebizitza libreak. Guztira, 61.365,02 metro karratuko gunea urbanizatuko da, eta %89a herritarren eskura jarriko da, berdegune eta parkearekin.



## PANTAILA AKUSTIKOAK, TOLOSAKO HERRIGUNEAREN AURREAN

Gipuzkoako Foru Aldundiak N-I errepidean pantaila akustikoak jartzea onartu du, Irun-Gasteiz norabidean, Tolosako hirigunearen parean. Gaur egun inguru horrek kalitate akustikoko helburu aplikagarrien gainetik dauden zarata-mailak jasaten ditu. 2 eta 3,5 metro arteko pantaila akustiko xurgatzaileak dira, eta horiei esker bizilagun

askoren bizi-kalitatea hobetzea espero da, batez ere, Ibaiondo, Larramendi eta Alde Zahar inguruko bizilagunena.





## MUBIL, GIPUZKOAKO ELEKTRO-MUGIKORTASUNA ZENTROA TOLOSAN KOKATUKO DA

Azken urteotan, bai Tolosan bai Tolosaldean 4.0 industria eta elektromugikortasuna lan lerro garrantzitsuak izan dira. Eta beraz, ez da kasualitatea MUBILeko Gipuzkoako Elektromugikortasun Zentroaren behin-behineko egoitza Tolosan kokatu izana.

Zentroa atea ireki eta jarduerari ekite gertu dago, izan ere, Usabal industria-gunean kokatuko den egoitzan hasiak daude

iraletik egokitzapen lanekin eta abenduan egoitza martxan izatea espero da.

Gipuzkoa mugikortasun eredu berrietan nazioarteko erreferente bihurtzea du helburu proiektuak eta Europan punta puntakoa den laborategia Tolosan kokatzeak aukera berriak sortuko ditu Tolosan eta Tolosaldean, enplegua sustatu, jarduera ekonomikoa bultzatu eta enpresen lehiakortasunerako eta nazioartekotzerako lagungarria izango da.



### *Sede provisional del centro de movilidad de gipuzkoa, en Tolosa*

La sede provisional de MUBIL Centro de Electromovilidad de Gipuzkoa está a punto de abrir sus puertas y arrancar su actividad en el polígono industrial de Usabal.

Este centro busca convertir Gipuzkoa en un referente en la nueva movilidad y contar con un laboratorio puntero a nivel europeo para crear nuevas oportunidades, supondrá un impulso para el empleo y la actividad económica de la comarca, ya que contribuirá a generar un nuevo tejido empresarial en la zona.

## AZOKA BEREZIAK, FORMATU BERRIEN BILA

Herritarren osasuna eta segurtasuna bermatze aldera azoka bereziak ohiko eran ospatuko ez badira ere, ekintza txiki sinbolikoen bidez horien esentzia mantendu nahi izan du Udalak, bate-tik, herri-izaerari lotuta daudelako eta, bestetik, udazkenean herriaren ikur eta bereizgarri direlako.

Horren erakusle da Tolosa Goxua azokaren aitzakian abiatu diren egitasmoak. Gozogileek egiten duten lanari eta herriaren bizian duten garrantziari balioa emateko, Eceiza, Gozona, Gorosti, Rafa Gorrotxategi eta Saizar gozogintza-etxeekin elkarlanean, etorkizuneko gozogileak topatu nahi izan dira haurrei zuzendutako lehiaketa baten bidez. Hala, bost bideo-errezeten bitartez, tolosar guztien eskura jarri dira tolosar gozo ezagunenak. Horrez gain, Goxuako astean hainbat tarta ere zozketatu ziren eta larunbatean gozotegietan zerbait kontsumitu zuten bezeroei Tximista pastelak banatu.

Babarrunaren festaren harira, Azoka Lagunak egitasmoaren baitan, azaroaren 14an ikastaroa ere eskaini zen Tolosako perla beltza prestatzen ikasteko.

### *Las ferias especiales, en nuevos formatos*

El Ayuntamiento ha buscado nuevas formas de mantener de manera simbólica las ferias especiales.

En el caso de Coxua se han grabado en colaboración con las y los reposteros locales 5 recetas de dulces que se han puesto a disposición de todas y todos los tolosarras, y también se ha llevado a cabo un concurso de repostería infantil.

En cuanto a la alubia de Tolosa, se ha impartido un curso dentro de la iniciativa Azoka Lagunak, para aprender a preparar la perla negra de Tolosa.



# TRIBUNA

## Alderdien iritzia



### Pertsonak erdigunean.

Izugarrizko ahalegina egiten ari gara guztiok, herritar, ostalari, merkatar, artista, haur, zein gazte, egoerara egokitzeko. Udaletik, gure indarrak eta udal baliabideak herritarren eskura jarri ditugu tolosarren beharrei erantzuteko, zaugarritasun egoeran dauden herritar eta sektoreetan arreta berezia jarrita.

Ezohiko egoerak ezohiko neurriak eskatzen ditu. 1,3 milioi euro bideratu ditugu #SuspertuTolosa planera, dirulaguntzak areagotu ditugu eta berriak martxan jarri, inor atzean ez uzteko.

Ekonomia indarberitzeko eta Tolosak berezkoa duen izaera komertzial eta kulturalari eusteko hainbat egitasmo gauzatu ditugu: kultur programazio berriak, bonu kanpainak, Azoka Lagunak proiektua, diru laguntzak... neurri guztiak Hiri Ekonomia Mahaiarekin landu eta adostuta.

Modu berean egingo dugu lan 2021ean ere: elkarlanean, pertsonak erdigunean jarrita, tolosarren beharrei erantzuten jarraitzeko.

**“Medidas excepcionales ante una situación sin precedentes. Ese ha sido nuestro marco de trabajo este año, priorizando en todo momento el bienestar de las personas y la reactivación socio cultural y económica de Tolosa, y esas seguirán siendo nuestras prioridades en 2021”**



**Azken hilabeteetan une gogorrek bizi izan ditugu, eta itxura guztien arabera datorrenak ere bide beretik jarraituko du.** Gertuko pertsona maitatuen heriotzak, bakardadea, beldurra, diru sarreren murrizketak, eta oro har, ziurgabetasun handiko egoeran bizi gara.

Une latz hauetan EH Bildun oso garbi dugu pertsonak eta gure ongizateak izan behar dutela lehentasuna. **Udaletik esfortzu berezi bat egin behar dugu zaugarrienak zaintzeko**, eta horretarako babes soziala indartzea ezinbestekoa da. Tokiko ekonomia babesteak izan behar du beste ardatzetako bat; ostalari, merkatar, autonomo, nekazari, kultur gileek... laguntza bereziak beharko dituzte.

Aurrekontuak egiterakoan, beraz, ezinbestekoa izango da aipatutako bi eremu horiek bereziki aintzat hartzea. Hala ere, ezin ditugu beste gai garrantzitsuak albo batera utzi; hala nola, etxebizitza parke publikoa handitzea, Tolosa bizigarriagoa bihurtzea eta oinezkoentzako tokia berreskuratzea, Emakumeen Etxearen proiektua egikaritzea, Tolosaldeko ospitale publikoa errealitatea izan dadin lanean jarraitzea eta komunitate izaera indartzea; guztia, elkar zaintza eta babesa erdigunerara ekarrita.

**Zerbitzu publikoak indartu eta herritarren eskura jartzeko garaia da.**



### COVIDari erantzuteko beharra.

Covid19ak eragindako krisia da Tolosako PSE.EEren lehen kezka. Atzean geratu dira urte askoan eztabaida politikoa izan duten eztabaida antzuak, hala nola, autodeterminazioa, independentzia, ala Estatuaren eredia. Etorkizunari diogun beldurra da geure kezkarik handiena. Beraz, horri erantzutea izan behar da gure lehen eginbeharra. Jakin behar dugu lehentasunak ezartzen.

Por esta razón nuestro objetivo es prestar ayuda a las personas y a los sectores de Tolosa más afectados por la grave situación social, económica y sanitaria. Se acabaron debates estériles que nos dividen.

Hori lortu ahal izateko PNV eta PSE.EE osatzen duten udal gobernuak “Suspertu Tolosa” lelopean maiatzean plan bat martxan jarri zuen, 32 neurri eta laguntza lerro zehaztuz.

En este programa hemos definido 3 ejes de trabajo: garantizar la protección social y el bienestar de las y los tolosarras, reactivar la economía urbana y mantenerla y proteger la cultura y el activismo socio comunitario.



# AGENDA

Tolosako giroa berpizteko garaia da!



ABENDUAK  
**23**

**Mikro-antzerkiak**  
19:00etatik, Antonio M<sup>a</sup> Labaien  
Kultur Etxean (Trianguloa Plaza 1)



ABENDUAK  
**24**

**Olentzero eta Mari Domingiri harrera**  
Gure Zirkuan



ABENDUAK  
**28**

**Hodei Magoa**  
17:00tan,  
Leidorren



ABENDUAK  
**30**

**Aita Mari Fundazioaren aldeko kantaldia: Eñaut Elorrieta, Mikel Urdangarin...**  
19:00retan, Leidorren



URTARRILAK  
**04**

**Ispirit, Euskal Gospel kontzertua**  
19:00retan, Leidorren



URTARRILAK  
**05**

**Erregeei harrera**  
Gure Zirkuan



# BAT EGIN ZUK ERE TOLOSATZEN HERRI ALIA NTZAREKIN

KEINU TXIKIEN  
BITARTEZ ERAIKI  
DEZAGUN GUZTION  
ARTEAN TOLOSA  
HOBE BAT

IDATZI HILABETERAKO ZURE  
KEINUA K-HELBURUA K-PROPOSAMENAK

ESKANEATU  
QR KODEA ETA  
PARTE HARTU



Plaza Zaharra 6A  
20400 Tolosa, Gipuzkoa  
T 943 69 74 60  
gizartezerbitzuak@tolosa.eus

Jendaurreko arreta:  
10:00-13:00  
astelehenetik ostiralera,  
ostegunetan izan ezik.

